

XVIII. ZIZURKILGO AZOKA BEREZIA



URRIAK
11
IGANDEA

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

urria

2015 | 136. zenbakia | udazkena
www.zizurkil.eus

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

XVIII. ZIZURKILGO AZOKA BEREZIA

11:00-14:30 / 16:30-19:30

Baserriko produktuak eta artisauak.
Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo
Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar
(Ordutegia: 10:45-15:00 eta 16:30-21:00)

11:00: AZOKAREN IREKIERA

12:00: Haurrentzat puzgarriak eta jolasak.

14:30: Bazkari herrikoia Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte eta
Egarri tabernetan. Prezioa: 20 euro.

17:00: Haurrentzat poniak, puzgarriak eta jolasak.

18:30: EMAKUMEEN GIZA PROBA, Desafioa: Oiartzun-Zeanuri.

20:00: BIHOZKADA taldearen kontzertua.



URRITIK AURRERA **ORDUTEGI BERRIA:**

ASTELEHENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
	1 Jolas librea	2 Kalendarioarekin hasi FOTOXEXION I	3 Jolas librea
5 Jolas librea	8 Gaztainak bildu	9 FOTOXEXION II	10 Jolas librea
12 ROBOTIKA edo YOUTUBERRAK	15 Gaztainak erre	16 ROBOTIKA edo YOUTUBERRAK	17 FOTOXEXION III
19 ROBOTIKA edo YOUTUBERRAK	22 Jolas librea	23 ROBOTIKA edo YOUTUBERRAK	24 FOTOXEXION IV
26 Jolas librea	29 Jolas librea	30 FOTOXEXION V	31 Zizurkil ezagutu

ASTELEHEN ETA OSTEGUNETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA 9-12 URTE BITARTEKOENTZAT.

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA 13-17 URTE BITAETEKOKOENTZAT.

gaztelera



www.zizurkil.eus



EUSKARA

DIRULAGUNTZAK

SUBVENCIONES

• **EUSKARA IKASTEKO:** aurten ere Zizurkilgo udalak herrian bertan euskara ikasi nahi dutenei lagunduko die.

• **AUTOIKASKUNTZARAKO:** Euskara ikasi zure erritmoan, ahal duzunean, loturarik gabe eta etxetik bertatik! Tutore baten gidaritzapean eta mintzapraktikak eginez. Ezin da errazago jarri!

Baldintzak: Zizurkilen erroldatua egotea eta %85eko asistentzia ziurtatzea. Matrikularen %75a (gehienez ere, pertsonako 400 €) jasotzeko aukera izango da (Autoikaskuntzaren kasuan, asistentziaren %85a mintzapraktiken araberakoa izango da).

MINTZALAGUNA

Euskaraz hobeto moldatzeko behar dituzunak: astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria ezagutzeko gogoia, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta zahar bat). **Guk lagunduko dizugu!** Urrian zehar izena eman dezakezu.

Informazio gehiago Aurrera Plazako udal bulegoetan eta 943 69 24 95 telefono zenbakian.

TEODORO HERNANDORENA XIV. IPUIN LEHIAKETA:

CONCURSO DE CUENTOS

Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, bost maila ezberdinetan:

- **A Maila:** 6-8 urte;
- **B Maila:** 9-11 urte;
- **C Maila:** 12-13 urte;
- **D Maila:** 14-16 urte eta
- **E Maila:** 17 urtetik gora.



Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, **azaroaren 20ko eguerdiko 14:00ak baino lehen** Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.



ANTZERKI TAILER MOTZA

TALLER CORTO DE TEATRO

Azaroa eta abenduko astezkenetan, 19:00etatik 21:00etara, HELDUENTZAT ANTZERKI TAILER MOTZA eskainiko du IRAITZ LIZARRAGAK.

Anima zaitez eta goza ezazu antzerkiarekin!



ATXULONDO KULTUR ETXEA, LIBURUTEGIA ETA IKASTAROAK:

APERTURA DE LA CASA DE CULTURA Y BIBLIOTECA: 2 de nov.

ATXULONDO KULTUR ETXEA ETA LIBURUTEGIA **AZAROAREN 2an** irekiko dira. Beraz, bertan egingo diren ikastaroak data horretatik aurrera hasiko dira.

JAKOBA ERREKONDO ZIZURKILEN



“Bizi baratzea” liburuaren aurkezpena 19:00etan Iriarte Kultur Etxean.